

Diru-iturriak

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Hasiera batean, gure zerbitzura joaten diren pertsonak ez dute ezer ordaindu behar; baina ekarpen ekonomikoa egin dezaketen pertsonen kasuan, eskertuko zaie, babesle eta emaileekin batera lagunduko baitigute beharrezko tresnak eta kalitate handiagoko materialak lortzen (faktore horri esker, emaitza hobea lortuko dugu lan klinikoetan).

Bakoitzak jarriko duen diru kopurua aukerakoa da, bakoitzaren baldintza ekonomikoetan oinarritua.

LaguDent aktiboak saltzen ditu, kasu honetan hortz-protesiak, zehazki, akrilikoak, protesi osoak eta partzial erauzgarriak, deskarga-ferulak, ferula periodontalak eta baraila birkokatze ferulak.

Gure diru iturri nagusiak dohaintzak, babesak eta diru laguntzak dira.

Bestalde, dirua biltzeko hainbat ekintza egiteko asmoa dugu. Gure burua ezagutarazteko eta lehen odol-emateak lortzeko, ongintzazko gala bat egingo dugu; horrela, dirua biltzea lortuko dugu proiektua aurrera eraman ahal izateko eta bestetik jendeak gure ekimena ezagutuko du eta gurekin harremanetan jarri ahal izango da gure zerbitzuak jasotzeko edo gurekin kolaboratzeko.

Urtean zehar ere merchandising-a eskuragarri izango dugu, hala nola, kamisetak, sudadera, prakak, motxilak, ur botilak, tote bagak, koadernoak, estutxeak, karpetak, galtzerdiak... Web orriaren bitartez eskuratu ahal izango dira edo gure posta elektronikoaren bitartez harremanetan jarri. Izan ere, merchandising denda bat sortzea gure diru iturriak dibertsifikatzeko eta ikusleen leialtasuna handitzeko modu eraginkorra da.

Idea hori aurrera eramateko, beste eduki-sortzaile edo marka batzuekin elkartuko gara, elkarrekin merchandisinga sortzeko. Horrek aukera emango digu audientzia berrietara iristeko eta haien jarraitzaile-basea aprobetxatzeko. Crowdfunding kanpainen teknika ere erabiliko dugu, non Kickstarter edo Indiegogo bezalako plataformen bidez finantzatu dugun, non pertsonak produktuak aurrez erosten dituzten etekin eksklusiboen truke.

Idea honekin hasteko, Think Pink Europe erakundearekin bularreko minbiziaren aurkako borrokan hainbatetan kolaboratu duen Oysho arropa markarekin harremanetan jarri gara.

